



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-11-03**

VIII. URTEA 2.116. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. IMAZ

ANDRES RUIZ TARAZONA MUSIKA KRITIKARIA ETA JAKITUNA

«Lehiaketan gertatzen denak mundu osoan du oihartzuna»

TOLOSA Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa oso gertutik ezagutzen du musika kritikariak, «behin bakarrik» huts egin du hitzordura 2

Espainiak ez zuen Europako Giza Eskubideen Ituna urratu Lasa-Zabala epaiketean

TOLOSA Vaquero, Dorado, Bayo guarda zibil ohiek, Galindo jeneral ohia eta Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil izandakoak sartu zuten helegitea 6

XABIER ERKIZIA MUSIKARIA

«Herritarrak musikaren erabilera ezberdinetaz konturatzea nahi dut»

OREXA 'Zizareak belarrietan. Musikaren boterea' hitzaldia eskainiko du gaur 21:30etik aurrera Kultur Hamabostaldiaren baitan 6-7

Titirijai eta Babarrunaren Astea ekitaldiz betetako hilean

TOLOSA Kultur egitarau oparoarekin batera iritsi da azaroa; erakusketak, jaialdiak, musika... 3

Ateak zabalduko ditu Asvineneak larunbatean

ADUNA Ekitaldi ugari izango dira arte eszenikoen laborategiaren ate irekien jardunaldian 4

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maite

Leitza kalea 2/g • Tolosa • 943 67 03 38

Diodo laserra

Behin betiko depilazioa

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta

tarifa bereziak gazteentzat



E **Elkarrizketa**

ANDRES RUIZ TARAZONA ▶ Musika kritikaria eta jakituna

Abesbatza Lehiaketa

» Espainiako hiriburuan bizi da Andres Ruiz Tarazona. Musika maitalea izateaz gain, udaletxean lan egiten duenez, teoria politikoak ere laket ditu.

ASIER IMAZ

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren 42. edizioa asteburuan ospatu da. Bertan egon da Andres Ruiz Tarazona (1936, Madril), musika kritikaria. 42 urte daramatza Tolosarako bidaia egiten, «behin bakarrik» huts egin duelarik. Madrilera itzuli aurretik, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN hitz egiteko denbora hartu du.

Antolakuntza gonbidatzen zaitu urtero. Zer egin behar da horretarako?

Hona etortzen hasi nintzenen, sortu berri zen *El País* egunkarian kritika zutabe bat egiten nuen. *RNE* ere musika irratsaio batzuk egiten nituen; *Café Concerto* haie-tako batzen. Nahiko ospetsua bilakatu zen eta telebistara eramatu zuten. Ondorioz, telebistan ere lanean ibili nintzen, 1990. urtera arte. Testuinguru horretan, urtero etorri naiz Tolosara. Egun ordea, inertziaz etortzen naizela uste dut.

«Abesbatzen Lehiaketa hau integrazio modu bat ere bada»

Zure iritzia ordea, oraindik pisua izaten jarraitzen du.

Ez dakit hori horrela den, baina musikaz hitz egiten jarraitzen dut hedabide askotan. Hiztegi eta entziklopedietan ere ekarpenak egiten ibiltzen naiz, hainbat musika ekitaldi eguneratuz. Horien artean Tolosakoa aurkitzen da, guztien artean garrantzitsuenetakoa, nire ustez.

Zergatik da hain inportantea?

Zabalkuntza izugarria duelako. Pentsa, hona Txinatik, Japoniatik edo Thailandiatik etortzen dira

«Tolosako Lehiaketan gertatzen denak mundu guztian izango du oihartzuna»

«Herialde edo arraza desberdinez gain, kantatzeko hamaika modu ikusten dira»

abiesbatzak. Eurek hemen egiten dutena, han jarraitu egingo dute. Tolosan gertatzen denak mundu guztian izango du oihartzuna.

Aurten adibidez, 16 herialdeak egin dute topo Tolosan.

Herialde edo arraza desberdinez gain, kantatzeko hamaika modu ikusteko aukera eskaintzen du honelako lehiaketa batek. Izan ere, arauak eskatzen dutenaz gain, abesbatza bakoitzak bere erreper-torioa ekartzen du. Hori oso aberasgarria da: Indian, Ameriketara edo Europako beste lekuetan zer egiten ari diren ikusten duzu. Kontinente guztiak herialdeak igaro dira Tolosatik, baita Australia-koak ere.

Madrilgo udaletxean egiten duzu lan, politikoz inguratutik askotan. Abesbatzen izaera hori, non gelditzen da eguno politikan?

Abesbatzen Lehiaketa hau integrazio modu bat ere bada, bai. Duela mila urte esan nuen nik munduan herialde bakarrak egon behar duela. Hori lehen ezinezko zen, oso zaila zelako urruneko herialdeekin komunikatzea. Baina

«Berpizkunde Garaiko polifonia nahiko konplexua da, kantatzeko ez da erraza»

gaur egun, Internetekin, parlamentu unibertsal bat sortzen duzu eta puntu. Munduko parlamentu horretan, herialde bakoitza biztanle kopuruaren arabera ordezkakatu litzateke, eta ez dago inongo arazorik. Gerrate guztiak adibidez, golpetik ezerezean geldituko liriteke. Noren aurka borrokatu behar duzu? Martiztarren aurka? Munduko herialdeek egun, armamentuetan gastatzen dute aurrekontuen zatirik handiena. Aurrezten duzun guzti horrekin, munduan ez litzateke pobrerik egongo. Teoria hau defendatzen urteak daramatza. Baina noski, inork ez dit jaramonik egiten: politikoek beti hor egon nahi dutelako.

Abesbatzen parlamentura itzuliz, honen bilakaera ere ezagutu duzu 42 urte hauetan.

Denetik egon da. Desagertu diren gauza interesgarriak ere hor daude. Lehen adibidez, konposizio lehiaketa egiten zen Tolosan. Sor-kuntza bultzatzen zuen eta asko gustatzen zitzaidan. Lehiaketa horretatik, oraindik mundu guztian kantatzen diren obra oso garrantzitsuak atera ziren.

Eta gustatu zaizuna?

Jarraipena. Lehiaketa bat antolatu hasten zarenean, askotan, zaila izaten da jarraipena ematea. Tolosan berriz, hori lortzeaz gain, Abesbatza Lehiaketa herritarren-

gan sustraitu da. Jendea sarrerak eskatzen ikusten duzu eta hori izugarria da.

Maila ere azpimarratzekoa da. Oro har nibela oso altua izaten da. Horrek lan bat eskatzen du: hara eta hona joatea, abesbatzak ikustea eta gonbidapenak luzatzea. Maila horren adibide garbia, aurreten gertatu da. Nire ustez, Frantziatik etorri den Abesbatza oso ona zen, baina saririk jaso gabe joan dira. Lehiaketa batek horrelako gauzak ditu.

Irabazleen inguruan, zein da zure iritzia?

Oso ondo iruditu zait. Baina frantziarrek harriritu gelditu naiz. Programa guztia ia gelditu gabe lotu dute: zoragarria. Pieza batetik

bestera, ia atsedetik hartu gabe joan dira, txaloentzat ere tarterrik utzi gabe. Abesti baten amaieran, ikusle bat txaloka hasi da, asko gustatu zaiolako edo, ondoren denak hasi dira. Abesbatzako kideak lekuz kanpo gelditu dira une horretan, dena jarraian prestatuturik baitzuten. Programa horrela betetzeak, niretzat, izugarriko prestakuntza lana eskatzen du. Zoragarria izan da.

Eta oro har zer iruditu zaizu?

Bikaina. Gainera, Lehiaketa honek beste askok ez duten haur abesbatzak ditu. Hungariako abesbatzak, haurren mailakoa irabazteaz gain, Sari Nagusia eramatu du. Izugarria. **Berpizkunde Garaiko edo XVI. mendeko musika interpretatu beharra zer iruditzen zaizu?**

Ongi iruditzen zait niri, hor ikusten baita abesbatzaren maila. Polifonia nahiko konplexua da, kantatzeko ez hain erraza. Nahiz eta ongi prestatuturik etorri, abesbatza askok hor huts egiten dute. Musika horretan ez daude hain espezializatuak eta askotan, abesbatza onak, lehiatik at gelditzen dira frog hau ez dutelako ongi gainditzen.



A. IMAZ



2011 agenda

Dagoeneko salgai



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherrikoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu. Bizi euskaraz **berria**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Azaroa askotariko jardueraz betea

Kultura » Urteko hilabeterik osatuena da hasi berri duguna, kultur egitarauari dagokionean.

ERREDAKZIOA

Era eta adin guztietako ekitaldiz beterik dator kigu azaroa. Horiek guztietatik Babarrunaren Astea, Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia edota oroimen historikoa-ren harira antolatutakoak nabarmentu ditzakegu.

Erakusketak

- **Inestable.** GKO Galeriararen eskutik, ikusgai, Aranburu jauregian, azaroaren 13ra arte.
- **Ignacio Elizaran.** Pintura erakusketak, Aranburu jauregian, azaroaren 13ra arte.
- **Japongo txotxongiloak.** Titirijai jaialdiaren barruan. Aranburu, azaroaren 27tik aurrera.
- **Wayang Golek.** Indonesiako txotxongiloak ikusgai Topic zentroan, urtarrilaren 10a bitarte.
- **Ertza.** The Single Rebels & The Badsurfers Club-en surfari buruzko erakusketa, GKO Galerian.

Hitzaldiak eta jarduerak

- **Patziku Perurena.** Goizuetan bada gizon bat lanaren aurkezpena. Kultur Etxean, gaur, 19:00etan.
- **'Los secretos del cerebro'.** Gurtz Linazasoro neurologoaren eskutik, bihar, Kultur Etxean, 19:30ean.
- **Gizonezkoentzat I. Sukaldaritza Ikastaroa.** Berdinbidek antolatuta, azaroaren 9tik aurrera.
- **Behi-esnari buruz.** Sergio Cal-samigliaren hitzaldia, azaroaren 9an, Kultur Etxean, 17:00etan.
- **Ipuin Txokoa.** Gurasoak ere ipuin kontari, Miriam Mendozarekin, Errotan, azaroaren 11n, 18:00etan.
- **Harresiak apurtuz.** Etorkinen babaserako koordinakundeak antolatutako tailerra, azaroaren 13an, Kultur Etxean, 09:30etik 19:30era.
- **Odol-ateratzea.** Hileroko hitzordua, azaroaren 15ean, Kultur Etxean, 18:30etik aurrera.
- **Venezuelari buruz.** Euskal Herria Sozialista elkarteak antolatutako hitzaldia, azaroaren 17an, Kultur Etxean, 19:00etan.
- **'El humor y la risa en la vida cotidiana'.** Barrearen eskolak antolatuta, azaroaren 18an, Kultur Etxean, 19:00etan.
- **Liburu Azoka.** San Frantzisko pasealekuan azaroaren 19tik 28ra.

- **Emakumeenganako Indareriaren Aurkako Eguna.** Berdintasun, Gazteria eta Kultura sailak antolatutako ekitaldiak. Azaroak 25.
- **Oroimen historikoa.** Azaroaren 25ean *Emakumea Gerra Zibilean* hitzaldia, udaltxean 19:30ean; azaroaren 26an *Prohibido recordar* dokumentala, Leidorren 19:30ean; eta azaroaren 27an, fusilatuei omenaldia hilerrian, 11:00etan.

Jaialdiak

- **Nazioarteko Trikitixa Jaialdia.** Leidor aretoan, etzi, 22:00etan.
- **Babarrunaren Astea.** Azaroaren 18tik 21era.
- **Zeinu Hizkuntza Eginiko Film Laburren I. Nazioarteko Jaialdia.** Gaintzen elkarteak antolatuta, azaroaren 20an, Leidor aretoan.
- **Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia.** Azaroaren 27tik aurrera, gune ezberdinetan.

Antzerkia

- **'Robot maitea'.** Marie de Jongh taldearekin, haur antzerkia, azaroaren 6an, Topic-en 17:00etan.
- **'Rebelion en el baño'.** Buena-mandarina antzerki taldearen eskutik, haur ikuskizuna, Topic-en azaroaren 13an, 18:00etan.
- **Tatxin eta Tatxan.** Pailazoaren saioa, Zerkausian, azaroaren 20an, 18:00etan.
- **Zirika zirkus.** Gaztekoentzako ikuskizuna, Zerkausian, azaroaren 27an, 18:00etan.

Musika

- **Santa Zezilia.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua, azaroaren 21ean, 12:00etan. Azaroaren 22an, kalejirak.
- **Arimaz.** Andre Mari elizako organoa berritzearen alde, Topic-en azaroaren 14an, 12:30ean.
- **Tolosa Kantari.** Tontokaletik abiatuta, azaroaren 27an, 12:00etan.
- **Manent.** Bonberenean, azaroaren 12an, 22:30ean.
- **Zea Mays.** Bonberenean, azaroaren 13an, 22:30ean.
- **Beti Mugan.** Bonberenean, azaroaren 19an, 22:30ean.
- **Naiz Roxa eta Cohen.** Bonberenean, azaroaren 20an, 22:30ean.
- **Gose.** Bonberenean, azaroaren 26an, 22:30ean.



Ohi bezala, Babarrunaren Astearen barruan, Azoka Berezia egingo dute. ESTI EZEBIZA

BERRIA

egunkariarekin **DOAN**

ATLAS HISTORIKOA
EUSKAL HERRIA HONETAN

Munduaren bilakaera Euskal Herriko historiaren bidez ezagutzeko liburua

Gure errealitatea ezagutzeko oso baliagarria

Azaroak 5, ostirala,
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan

EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.

Euskal Herriko historiaren urrats nagusiak biltzen dira atlas honetan. Historiuretik gaur egunera bitarteko hainbat gertakari ezagutzeko kontakizuna da.

Horretarako, irudia ballabide garrantzitsua da: ehunka argazki, marrazki eta mapaz gain, hainbat eskema eta jakin garri agertzen dira, gure herriko historiaren ikuspegi orokorra eta argia izan dezagun.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak, garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen) telefonora.

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin edota umeak zaintzeko, esperientziadun emakumea lanerako eskaintzen da. Interesatuak, deitu 659 07 75 91 telefono zenbakira. Jone.

Babesleak:



Arzabio Foru Arantza
Diputación Foral de Álava



aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



Adunan, Zubitxiki 15ean aurkitzen da Asvineneak duen egoitza. Ezagutzera emateko, atek zabalduko dituzte. HITZA

Asvinenea arte eszenikoaren laborategiak larunbatean atek zabalduko ditu

Aduna » 17:30etik aurrera ate irekien jardunaldia egingo dute; ikuskizunak, musika, lunch-a, bideo emanaldia... izango dira.

ERREDAKZIOA

Asvinenea arte eszenikoaren laborategia eraberrituta dator. Hori dela eta, hilaren 6an, ate irekien jardunaldia egingo dute. 17:30etik aurrera, interesa duten guztiak Adunan dagoen Asvinenearen egoitza ikusteko aukera izango dute. Sormenerako estaldura artistikoa duen egoitzan guztiak ongi etorriko izango dira.

Sorkuntza lanak garatzeko eta norbere ezagupenak partekatzeko asmoarekin, arte eszenikoaren inguruan zebiltzan lagun talde bat elkartuta sortu zen Asvinenea elkarteak. Leku bat behar eta Adunan ko-

katu zuten beraien egoitza soziala. Leku berezi bezala definitzen dute Asvinenea, «magiaz eta ilusioaz» betetako egoitza da.

Sormena eta esperimentazioa
Arte eszenikoaren laborategiak duen xedea, arte eszenikoaren inguruan esperimentazioa eta sorkuntza sustatzea da. Sormenari, sarre-za zein irteera emateko gune desberdinetan gauzatzeko den estaldura artistikoa da.

Sormenerako estaldura artistikoak, formakuntza, esperimentazioa, errepresentazioa eta hedapena ditu oinarrian. Lau atal ezberdinetan banatu nahi izan dute proiektu berria: eskola, espazioa, sala eta gira-bira. Horrela, elkarteak, apustu eszeniko berrien sormena erraztu nahi du. Eta era berean, arte eszenikoaren inguruan interesa dutenei, garapena eta bilakaera eskaini nahi dizkiete.

Asvineneak, atek parez pare ireki nahi ditu. Entseguetarako leku bat behar duten norbanako edotataldeei, duten espazioa eskurajarri nahi diete.

Guzti honen berri zuzenean jasotzeko eta ezagutzeko aukera paregabea izango da.

» AZAROAK 6

■ **17:30ean.** Jarduera ezberdinak ikusgai, Asvinenea bideo emanaldia, lunch-a, ikuskizunak, musika zuzenean eta sorpresak izango dira.

■ **Ate irekien jardunaldia.** Proiektu eta asmo berriak ezagutarazteko, herritar guztiak atek zabalduko dizkiete.

■ **Arte eszenikoaren laborategia.** Lau atal ezberdinetan banatu dute: eskola, espazioa, sala eta gira-bira. Formakuntza, esperimentazioa, errepresentazioa eta hedapena.

Argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna hilaren 8a izango da

Anoeta » Udalak, 2011ko egutegia egingo du parte hartzen duten argazkiekin. Gaia, 'Txapela buruan, ibili munduan' da.

ERREDAKZIOA

Anoetako udalak antolatzen duen argazki lehiaketa azken egunetara iristen ari da. Anoetan erroldatuta daudenean parte hartu ahal izango dute, bakarka nahiz taldean.

Gaia, *Txapela buruan, ibili munduan* izango da. Ez da derrigorrezkoa txapelarekin zerikusia duen argazkia izatea; azken finean, edozein opor edo bidaiari buruzko argazki polit bat izan daiteke. Lehia-

kide edo talde bakoitzak hiru argazki aurkez ditzake gehienez ere.

Argazkiak paper fotografikoan aurkeztuko dira, 13x18 neurrian eta horizontalean. Bi gutun-azal aurkeztuko dira: batean argazkiak sartuko dira, eta argazki bakoitzaren atzealdean lehiakidearen edo taldearen goitizena bakarrik idatziko da. Bigarren gutun-azalaren kanpoaldean aukeraturako goitizena idatzi eta barruan datuak hauek: izen-abizenak, telefono zenbakia, argazkia non aterata den eta bertan zerikusten den.

Argazkiak aurkezteko azken eguna azaroaren 8a izango da, eta Anoetako udaletxean utziko dira. Udalak erakusketa egingo du argazki guztiak.

Laburrak

Klima aldaketaren aurkako mahaia osatzeko bilera

TOLOSA » Tolosako Udalak apustu sendoa egin du klima aldaketaren kontra. Plan eraginkor bat burutu eta ekintza zuzenak martxan jarri nahi ditu. Helburua berotegi efektuko gasen isurketak saihestea da. Honen inguruan lan egiteko, klima aldaketaren aurkako mahaia osatu behar da. Mahai horrek, metodologia eta oinarri parte-hartzaileak erabili nahi ditu, herritar guztiaren ordezkaritza bermatu eta ekarpenak batuz. Hori dela eta herritar guztiak gonbidatuta daude gaur 19:30ean, Udaletxeko hirigintzako bilera gelan egingo den bilerara.

Hilaren 27an, Faltzesko bodegara irteera

ALKIZA » Faltzesko Iñurrieta Bodegara irteera antolatuta dute. Lehenengo, Faltzes herria bisitatuko dute. Hilaren 27an, 08:30ean Alkizako plazatik aterako da autobusa. Bidaiaren kostu osoa 40 euro izango da. Izena eta ordainketa, azaroaren 20 a baino lehen Ostatu jatetxean egin beharko da.

Odola emateko aukera gaur, 19:00etatik aurrera

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta Kiroldegian, odola emateko aukera izango da gaur. Ohi bezala, 19:00etatik 21:00etara egongo dira liburuetan. Herritar guztiak dei egiten zaie odola ematera joateko. Odola eman ostean, indarrak hartzeko jatekoa eta edatekoa ere izango da.

Bihar 19:00etan ohiko osoko bilkura egingo dute

LARRAUL » Bihar 19:00etan ohiko osoko bilkura egingo dute. Bertan gai hauek jorratuko dituzte: urriaren 7an egindako ohiko udalbatzarreko akta onartzea; alkatetzaren ebazpen berri ematea; obra baimen eskaera; 2010. urteko herriko jaien kitapenaren berri ematea; 2011. ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik, Tasa eta Prezio Publikoaren Ordenantzak onartzea; Pello Errota ikastetxearen eskutitzaren erantzuna; fakturak eta ordainketak; eta bukatzeko, erregu, galdera eta moziok.



**OPARI BAT ERAMAN
ZURE EROSKETAREKIN
BATERA IRAGARKIA
ERAKUTSIAZ
(Azaroak 30 arte)**

SAN FRANTZISKO, 23 Tolosa
TLF.: 943655719
www.tantai-denda.com

Estrasburgok dio Espainiak ez zuela Giza Eskubideen Ituna urratu Lasa-Zabala epaiketan

Tolosa » Vaquero, Dorado, Bayo, Galindo eta Elgorriagak sartu zuten helegitea 2003. urtean.



Lasa eta Zabala omenez egindako ekitaldi batetako artxibo irudia. HITZA

ERREDAKZIOA

Estrasburgoko Auzitegiak ebatsi du Espainiako Estatuak ez zuela Europako Giza Eskubideen Ituna urratu. Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosarren bahiketari eta hilketari buruzko epaiketan. Hain justu, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak atzo esan zuen Espainiak epaiketan ez zituela ituneko 6.1 (epaiketa justua izateko eskubi-

dea), 6.2 (errugabetasun presuntzioa) eta 6.3 (defentsa eskubidea) puntuak urratu.

Angel Vaquero, Enrique Dorado eta Felipe Bayo guardia zibil ohiek, Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneral ohiak eta Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil izandakoak helegitea sartu zuten 2003an Europan, Espainian helegiteak jartzeko aukerak agortu ostean. 'Biktima' gisa zioten aipatutako eskubide horiek bortxatu zizkietela, eta auzitegi inpartzial batek egin zieten epaiketa.

Estrasburgok 2008ko abenduan tramiterako onartu zituen Lasa-Zabala auziko helegiteak.

GALen lehen ekintza

GALen lehen ekintza izan zen hura. 1983ko urriaren 16an bahitu zituen Lasa eta Zabala, eta 1995ean agertu ziren haien gorpuak Herrialde Katalanetan, Alacanten, tortura zantzuekin. Espainiako Auzitegi Nazionalak 68 eta 74na urte arteko zigorrak ezarri zizkien Galindori, Vaquerori, Doradori, Bayori eta Elgorriagari 2000ko apirillean, Lasa eta Zabala bahitu, torturatu eta hiltzea egotzita. Espainiako Auzitegi Gorenak zigorrak handitu egin zizkien. Halere, egun inor ez dago kartzelan.

Tolosar iheslariak ziren Lasa eta Zabala. GALek 27 euskal herritar hil zituen 1983 eta 1987 artean.

Bonberenea literatur&art-ek antolatutako Literatura Astea hasiko da gaur

Tolosa » Gaurko hitzaldia 111 Akademiak antolatutako Kilkerren Soka ekimenaren baitan ere sartzen da.

ERREDAKZIOA

Bonbereneak azpisail berria du, literatur&art izeneko, hain zuzen ere. Azpisail berri honek gaur bertan emango du lehen pausoa Literatura Astea antolatu baitute. Larunbata bitarte ekitaldi desberdinak izango dira hortaz, Tolosan.

Literatura Astea antolatutako Literatur Eskolaren, Tolosako Galtezaundi Euskara Taldearen eta egoitza Zizurkilan duen Euskal Literaturazaleen 111 Akademiaren laguntza izan dute.

Ekitaldiak

Gaur Patziku Perurena leitzararren txanda izango da. 19:00etatik aurrera Kultur Etxean izango da idazlea *Goizuetan bada gizon bat* lana aurkezteko.

Bihar, hilak 4, aldiz, Jokin Muñoz izango da Tolosan. 19:30etik aurrera bere *Antzarraren bidea* liburua aztertuko dutelarik Kultur Etxean.

Larunbatean 10:00etan Bonberenean musika eta literatura uztartzeko txanda izango da Literatura Eskolaren mintegietako baten eskutik. Leire Lopez Ziluaga eta Ibon Rodriguezek Mikel Laboaren hizkuntzak aztertuko baitituzte. Ondoren, 13:30ean, bazkaria egingo dute Bonberenean bertan.

Ekitaldi hauetan parte hartzeko alde zuretik eman behar da ize-

na literaturart@bonberenea.com helbidean.

Kilkerren Soka

Gaurko Patziku Perurenaren hitzaldia, dena den, 111 Akademiaren Kilkerren Soka ekimenaren baitan ere kokatzen da. Leitzarrak bere azken saiakera aurkezteko akademiako Ion Olanoren laguntza izango du.

Hurrengo saioa Baionan izango da azaroaren 9an. Bertan Iban Zalduak *Ipuinak-Antologia bat* aurkeztuko du Ur Apalategi alboan duela.

Aipatu behar da hilaren 10ean Yurre Ugarte tolosarrak *Gasolindegian* lana aurkeztuko duela Kilkerren Soka ekimenaren baitan Basaurin, Euskarabila elkartearen egoitzan 19:00etan.

Euskal literatura eta irakurzaletasuna bultzatuz

Kilkerren Soka euskal literatura eta irakurzaletasuna sustatu eta bultzatzeko asmoz antolatu du 111

Akademiak. «Urteko sorkuntza ezagutzera eman eta idazleei sorkuntza hori irakurleekin partekatze aukera eskaintzea dugu helburu», azaldu dute akademiako ki-deek.

Egitasmoaren lehen zati honetan sei liburu aurkezpen antolatu dituzte Euskal Herriko sei herri desberdinetan. Eskualdeko idazleak ere bertan egongo dira.



Mikel Laboaren hizkuntzak aztertuko dituzte Bonberenean larunbatean. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILARIEN BAIKOA **FUNERARIA VASCONGADA**
902 402 900

E Elkarrizketa**XABIER ERKIZIA** › Musikaria

Orexa › Kultur Hamabostaldiaren baitan, 'Zizareak belarrietan. Musikaren boterea' hitzaldia eskainiko du gaur 21:30ean, Xabier Erkizia nafarrak.

ESTI EZEIZA

Musikari, ekoizle eta kazetari nafarrak hitzaldia eskainiko du gaur Orexan, Kultur Hamabostaldiaren baitan. *Zizareak belarrietan. Musikaren boterea* jarri dio izenburu 21:30ean hasiko den hitzaldia. Metafora honekin, «denok bizitu dugun esperientzietako bat nabarmendunahi izan dut, hau da, gustuko dugun edo ez dugun kantu bat buruan sartzen zaiguneko eta ezin duguneko atera». Honi, belarriko zizarea deitzen baitio berak. Xabier Erkizia musikaria, soinu artista, kazetaria eta ikerlaria da. Azken hamarkadan Beran ospatzen den ERTZ beste musikaren jaialdiaren zuzendari, Donostiako Arteleku zentroko AUDIOLAB soinu laborategiaren koordinatzaile eta [UN]COMMON SOUNDS edo ARTE SONORO nazioarteko ikerketa egitasmoetako kide izan da.

'Zizareak belarrietan. Musikaren boterea' jarri diozu izenburu hitzaldia. Zergatik?

Musika normalean, aisialdirako gai bezala ikusten dugu, baina berez, funtzio ezberdinetarako erabili dezakegu musika. Horren arrastoak azken mendeetako kultura guztian zehar daude. Horregatik, zizareari egiten diot erreferentzia, hau denok bizitu dugun esperientzietako bat baita, hau da, gustuko dugun edo ez dugun kantu bat buruan sartzen zaiguneko eta ezin duguneko atera. Belarriko zizarea deitzen diogu horri.

Belarriko zizareez gain beste gai batzuk ere izango dituzu hizpide.

Metafora hori gaietako bat izango da, baina musikarekiko ditugun erlazio ezberdinez ere mintzatuko naiz.

Botere eragile horren kasu nabarmenak zeintzuk dira?

Komertzioekin lotutakoak izango lireratek ezagunenak, baina zaku berean sar ditzakegu erreferentzia mordo bat. Ez bakarrik musikari lotuak, baita soinuena ere. Esaterako gure kantutegi tradizionalan, lanerako erabili izan diren abesti pila bat topa ditzakegu. Laneko erritmoa markatzeko. Hor erabilera kontziente bat edo espresuki egindakoa aurkitu dezakegu. Era berean, garbi dago eta ikerketa ugari egin dira, agertzen dutenak, merkataritza-gunetan eta gune publikoetan, oro har, musika bertan dauden pertsonen eritmo bat jartzeko erabiltzen dela. Ez berriak erabakitakoa, baizik eta den-



IRUTXULOKO HITZA

«Zenbaitetan musika torturatzeko erabili izan da»

da horrek, edo bere marketing sistematik behar duena. Dena den, badaude adibide gehiago, jendearen kontrol horretarako erabiltzen den musikaren inguruan. Hortik abiatuta, adibide gehiago badaude, horien artean, erabileren militararako nahiz, kasu gogoragoetan, torturarako erabili direnena. Musikak dauzkan erabileren ezberdin horietaz ere konturatu behar gara. Hainbat erabileren artean, horien artean, erabileren militararako nahiz, kasu gogoragoetan, torturarako erabili direnena. Musikak dauzkan erabileren ezberdin horietaz ere konturatu behar gara. Hainbat erabileren artean, horien artean, erabileren militararako nahiz, kasu gogoragoetan, torturarako erabili direnena. Musikak dauzkan erabileren ezberdin horietaz ere konturatu behar gara.

Musikaren gureganako eragin hori kontrolatu al dezakegu?

Bai, egun daiteke. 50. hamarkadan konpainia batzuk sortu ziren, espresuki lantokietarako musika egiten zutenak. Horiek, ordutegi ezberdinaren arabera erabiltzen ziren. Enpresa hauek ez ziren ezerezetik hasi, baizik eta, nolabait konturatu, kultura tradizional ezberdinetan, zer nolako musika sortuz joan ziren, une jakinetarako. Esaterako, Indiako raga kantuak eguneko une bakoitzerako eginak daude, badaude, goizekoak, arratsaldekoak nahiz ilunabarrekoak. Eta horietako batzuk, lasaitzeko dira eta besteak aktibatzeko. Hala, baieztatua dago, horrek funtzionatzen duela, eta gainera, eragin tradizionalatik baldin badator, hori da mendeetako ikerketa bat egon delako. Hala ere, hori gaur egun aplikatzeko, gauza batzuk aldatu behar daude, gure kultura ezberdina baita, eta beste jokaera nahiz lanbide batzuk baititugu. Halaber, kasualitate handia da musika batzuk erabiltzea aisiarako, eta beste tonu batzuk lanerako.

Eragin hori, onerako nahiz txararako erabili daiteke.

Horregatik, batzuetan ez gara kontziente horretaz, eta gainera bukatzen dugu, kontrolatzeko jartzen diguten musika hori, guk geuk, aisiarako erabiltzen. Hori dela eta, horren eragina nolako den jakitea zaila da, eta leku abstraktu batera eramaten gaitu, baina hori hor dago eta horri buruz jakiteak ez digu kalterik egingo.

Egun, lehen baino gehiago erabiltzen al da musikaren botere hori?

Horren inguruan, gero eta inkontzientegoak gara. Musika ez baitugu horrenbeste lanerako erabiltzen, baina aldi berean, gero eta musika gehiago entzuten dugu gure egunerako bizitzan. Gainera,

gero eta gehiago entzuten dugu, nahi ez dugun, edo entzutea erabaki ez dugun eta behar ez genukeen musika.

«Musika normalean aisialdirako gai bezala ikusten dugu, baina funtzio ezberdinak ditu»

«Pertsonen erritmo bat jartzeko erabiltzen da; ez beraiek nahi dutena, sistemak behar duena»

«Kontrolatzeko jartzen diguten musika hori aisiarako erabiltzen dugu»

Botere horren izateaz ohartuta, gauza latzak ere egin dira.

Kasu oso gogorak badaude bai. Esaterako, Guantanamo edo Irakeko kartzeleetan zenbait musika erabiltzen zuten beste kulturetako pertsonak torturatzeko, edo egoera jakin batean mantentzeko. Horretarako, beraientzat guztiz arrotza zen musika jartzen zieten. Hori errealitate bat da, eta musikari askok salatu izan dute errealitate hori. Baina kasualitatez, beraien musika hori entzunarazten dutenak. Beraz, kontraesan horiek ere

hor daude, eta gutxi hitz egiten da horren inguruan. Beti ere, musikaren kontsumoa, kontsumoarekin eta diruarekin lotzen direlako. Hori dela eta, musikaren analisi horiek aldarrikatzea beharrezkoa dela esango nuke.

Atzerriko gero eta musika gehiago kontsumitzen da. Ondorioz, hitzek baino gehiago, erritmoak eta doinuek eragiten al dute?

Bai, izan ere, gauza bat da abestiaren izaera bera, eta bestea, nola erreproduzitzen den. Honek berak, aldatu baitezake musika. Musika batzuk, ordenagailuetako bozgorailuetatik entzun ditzakegu, edo, mugikorretik. Esaterako, kaskoetatik entzuten baldin badugu musikaren eragina desberdina da, zuzenean jasotzen baitugu, ia interferentziarik gabe. Baina badaugu tradizio edo kultura bat, frekuentzia zehatz bat erabiltzeko. Horren adibide da, 60ko hamarkadan, Pink Floyd taldeak, bere kontzertuak hasi baino lehen frekuentzia oso baxu bat erabiltzen zuela, jendea egoera jakin batean jartzeko. Horrek funtzionatzen du, eta esaterako, makrokontzertuetan, frekuentzia baxuak erabiltzen dituzte, hauek, gu lasaitzeko joera dutelako. Goiko soinuek berri, estresatu egiten gaituzte. Horregatik, gauza jakina da, hauek denak, egunero entzuten duguneko txertatuak daudelako. Ikusi behar

duguna da, nola erabiltzen diren, eta zertarako.

Honen haritik, abesti perfektuaren bila ere ari omen dira ezta?

Gauregun, software munduan, eta musika saltzeko erabiltzen diren programen hainbat ikerketa sail,

«Gero eta gehiago entzuten dugu nahi ez dugun edo entzutea erabaki ez dugun musika»

«Munduko hainbat ikerketa sail abesti perfektuaren bila dabilta»

«Gaur egungo musika arrakastatsuen publikitatearen bitartez jasotzen dugu»

eta horietako bat da iTunesena, jendearen gustuen arabera, abesti perfektua zein den jakin nahian dabilta. Hau da, ahalik eta jende gehienarengana iritsiko dena.

Jendea ohartzten al da musikak bere baitan duen botereaz?

Denak erortzen gara musikaren besoetan. Hala, askotan ezin dugu ekidin, musika jakin bat entzutean, dantzan hastea, triste jartzea edo kontent egotea. Musikak horretarako gaitasuna du eta bere

magia horietako bat da. Baina kontziente izan behar dugu eta jakin, musika nola erabiltzen dugun, eta honek nola erabiltzen gaituen gu. Bi hauen arteko oreka aurkitu beharra daukagu. Egia da, normalean ez dugula musikarekiko susmorik, izaten, baina kontua da, eguneko horrenbeste musika entzuten dugunez, hau jakiteak ez digula kalterik egingo.

Oreka hori aurkitu al daiteke?

Honek, beste entzuketara praktika batzuk martxan jartzea eskatzen du. Gure kultura ikusten duguneko gehiago dago oinarrituta, entzuten duguneko baino. Horregatik, gure aurreko belaunaldiek egiten zuten bezala, entzutea itzuli beharra daukagu. Telebista ez zegoeneko, eta irudiaren boterea horrenbestekoa ez zeneko jakintza asko galtzen ari gara. Esaterako, gaur egun, zenbait gauza ziurtzat ematen ditugu, horien artean, denok ulertzen dugu trafikoa zuzentzea txarra dela osasunarentzat, baina aldi berean, hirietan bizi den jendeak, trafikoa hots hori beharrezkoa du lo egiteko. Gero eta nabariagoa da, isiltasunarekiko sortu dugun beldurra. Etxera iristen ere, segituan, automatikoki, telebista edo irratia pizten dugu. Horiek, arrasto batzuk dira, ikusteko, gure kulturaren zein harreman mota mantentzen dugun isiltasunarekin. Horregatik, galtzen ari gara, beste entzumen batzuk, konkretuagoak, definituagoak eta lasiagoak. Gure eguneroko bizitzan ere topa daitezke arrasto horiek, egun, «kontzertuak ikustera» joaten baikara, eta ez entzutea.

Ikusten diren gauzei garrantzia gehiago ematen diogun gizartea izatean, entzumen garrantzia galtzen du beraz.

Hor beste harreman bat ere badaugu, eta gainera, musika industriak asko esplotatu dutena. Izan ere, musikak nortasuna sortzeko gaitasuna du. Horregatik, gaur egun, musikaren bidez, irudi bat saltzen digute. Eta musika gustatu edo ez, bere irudia, musikariarena gustuko baldin badugu, gurea bezala onartzen dugu. Lehen zailagoa zen musikariaren irudia ezagutzeko, baina gaur musika arrakastatsuen publikitatearen eta bideo-klipen bitartez jasotzen dugu.



Xabier Erkizia musikaria, soinu artista, kazetaria eta ikerlaria da. SINADURA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Arabako etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____

• N.A.: _____

• Lanbidea: _____

• Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____

• Herria: _____

• P.K.: _____

• Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA, HEDABIDEAK S.M.-ren fitza egiteko automatizatu batera pasatuko direla, errepasak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezetzatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahi izanez gero, idatzi behar duzue. TOLOSALA HERRIA, HEDABIDEAK S.M. Arabako etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.net



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Zezen-plaza auzoko bizilagunek urtero bezala afaria egingo dute azaroaren 6ean. Izen-ematea, ohiko lekuetan.

Erakusketa

- **Tolosa.** *Irdiak* erakusketa GKO Galerian.
- **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa dago ikusgai Aramburu jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongi-loen erakusketa dago ikusgai Topic-en.
- **Tolosa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek eginitako obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian.
- **Tolosa eta Alegia.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Tolosako Lanbroa tabernan eta Alegiako jubilatuen tabernan. Itziar artista irundarrak eginak.

Hitzaldia

- **Oresa.** *Zizareak belarrietan, musikaren boterea* hitzaldia eskainiko du Xabier Erkiziak 21:30etik aurrera, Kultur Hamabostaldian.
- **Tolosa.** *Goizuetan bada gizon bat* liburua aurkeztuko du Patziku Perurenak Jon Olano 111 Akademiako kidearen laguntzaz. 19:00etan, Kultur Etxean.

Zinema

- **Tolosa.** *El velo de Berta* filma Leidor aretoan 19:30ean, Mugarik Gabe taldeak antolatuta. Sarrera doan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Mendia Barriola. Aralar kalea, 25. 948 50 40 71.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gaztetxo ugari hartu zuten parte igandeko Azoka Berezian egin zuten talo tailerlean. HITZA

Asteburu «polita»

Bedaio » Larunbatean Asier Izagirre mendizalearen hitzaldia izan zuten, eta igandean, berriz, Azoka Berezia.

ERREDAKZIOA

Asteburu bete izan dute Bedaion. Batetik, larunbatean, Asier Izagirre mendigoizalearen bisita izan zuten, eta igandean, berriz, Azoka Berezia zela eta postu eta jarduera ugari izan zituzten.

30 lagun inguru bildu ziren larunbatean Asier Izagirrek emandako hitzaldian. Antolatzailerek azaldukoaren arabera, «oso polita eta interesgarria izan zen, eta bedaiotarrok zortzimilako mendie-

tatik gertuago gaude orain». Nepal eta Himalayan bizitako gorabeherak azaldu zituen Izagirrek, bertako irudiez lagundurik, eta auzotarrek egindako galderak «gogotsu» erantzun zituen.

Oparia ere jaso zuen mendizale tolosarrak bedaiotarren eskutik, bertako produktu berria, hain zuzen. «Beti izan dugu gonbidatuei esker ona azaltzeko nahia, eta oraingoan gauzatu ahal izan dugu. Bedaiotarrok, inguruan ezagutzen ditugun herri gehienetako herritarrek bezala, badugu ezizen bat, *makilak*, hain zuzen ere, eta horregatik, mendirako edo paseatzeko edo toki kuttunen batean gordezko egokia izan daitekeen makiler bat oparitu genion Asierrri», azaltzen dute antolatzailerek.

Azoka «arrakastatsua»

Bestalde, igande goizeko hamarretarako Azoka Bereziko postu gehienak prest zeuden edo azken ukituak ematen, eta jendea berehala hasi zen postuetara hurbiltzen. Beste urteetan, abenduan, egin izan dute, baina aurretik, eguraldiagatik zertxobait aurreratzea pentsatu zuen antolakuntza taldeak, eta «bete-bete» asmatu dute. «Batetik eguraldi atsegina izan dugu, eta bestetik, baratzeiko produktuen eskaintza ugariago izan da», diote. Horren ondorioz, beste urteetan baino jende gehiago hurbildu da azokara eta postuetan zeuden baserritarrek nabaritu zuten salmantan. «Eguerdiko ordu baterako produktu izar denak salduak ziren eta batzuk postuak ja-

sozten hasiak ere bai. Izan ere, orduko jendea barra ingurura hurbildu zen eztarria busti eta ogitar-teko edo talo goxoa jatera». Giroa are gehiago alaituz, berriz, Loatzo Musika Eskolakoak aritu ziren.

Baserriar postuez gain, bazen artista eta artisau lanik ere. Baita garai bateko lanabes, tresna eta altzariak ere. Animaliak ere ugari, eta gazteenek zaldiz ibilalditxoak egiteko aukera izan zuten. Horrez gain, talo tailerlean ere gazte ugari hartu zuten parte. «Izugarri gozatu zuten; taloa egin, erre eta barrura. A ze mokadu ederra eta norberak egina, gainera».

Azokaren amaieran salgai zeuden produktuez osaturiko otar eder bat zozketatu zuten eta sari-duna Pako Beldarrain izan zen.

amaika
ikusteko, bizitzeko



Asteazkenean 22:00-etan mahai inguruan.

esatea libre

SINTONIZATU EUSKALDUNOKIN: LTD BIDEZ (eskatu antenari), EUSKALTELE BIDEZ (11 edo 911), www.hamaka.tv